



SUKAR HORIA

## Dirua landatzea

**B**asogintza ereduen arteko talka irudikatzen duten bi albiste ezagutu ditugu aste honetan. Alde batetik, ezezagun batzuek basogintza jasangarriaren alde lan egiten duen Errez kooperatibaren autoari eraso egin diote Aramaion. Bestetik, Hernani eta Arano artean eukalipito-landaketa industrial bat suntsitu dute hainbat ekintzailek, landaketa horiek eragiten duten kalte ekologikoa salatzen.

Ekintzaileek jopuntuan jarri duten landareak ederto islatzen ditu gaur egun nagusi den basogintza-eredu kapitalistaren logika eta funtzionamendua.

Eukalipitoa XVIII. mendearen amaieran ekarri zen Australiatik Europara, eta gurean 80eko hamarkadan hasi zen garrantzia hartzen; 40 urtetan bere presentzia laukoiztu da. Zuhaitz horiek oso arin hazten dira; 10-15 urtera mozteko aukera dagoenez, epe laburrean mozkin oparoak lortzeko aukera ematen du.

Hazkunde bizkor horren txanponaren beste aldea inguruan eragiten duen kalte ekologikoa da. Izan ere, eukalipitoak lurra pobretzen du, hazkuntzarako nutriente eta ur kantitate handiak xurgatzen baititu. Gainera, inguruko bio-niztasuna murriztu eta suteak hedatzea errazten du. Hori gutxi balitz bezala, eukalipitoak (eta pinuak) mozteko erabiltzen den matarrasa sistemak pobretutako lurzorua higadura sustatu eta ibaietan eragin zuzena du.

Baina, nortzuek babesten dute eukalipitoa, eta, orokorrean, baso-eredu kapitalista? Bada, eredu horri esker poltsikoak betetzen dituztenek, hau da, basogintza sektoreak. Sektore hori ondo antolatuta dago EAEn, eta bere interesak defendatzen dituen presio-talde bat ere badute: BaskEgur.

BaskEgurren barruan egurraren zenbait arlotako enpresari elkarteak daude: lur-jabeak, papertegiak, egur transformatuaren enpresak... eta BaskEgurrek lan politiko, ideologiko eta propagandistikoa egiten du haien interesak defendatzeko.

Euren kanpainetan beti azpimarratzen dute lur-jabe txikiak basogintza sektorean duten garrantzia. Baina apur bat ikertuz gero, erraz aurki daitezke barnean dauden multinazional nagusiak: Iberpapel eta Smurfit Kappa (163,93 eta 1.702 milioi euroko irabaziak izan zituzten 2021ean, hurrenez hurren).

Munduan barrena landaketak dituzten enpresa horiei bost axola die epe ertainean zer kalte eragiten duten, eurentzat dirua biderkatzeko tresnak baino ez baitira: diru-landaketak. Gainontzekook, ordea, landaketa horien guztien ondorioak sufrituko ditugu.

Horregatik, dirua landatzeari utzi eta gure beharrak asetu eta biodibertsitatea zainduko duen baso-eredu baten alde egin beharko genuke. ●



ARANTZA GUTIERREZ  
EHU-KO IRAKASLEA

## Urrun dago... Sudan

**S**udango gerrak milaka errefuxiatu eragin ditu; horien bila ez da inor joango, Europak ez du artatzeko dispositibo berezirik abiatuko, ezta korridore segururik zabalduko ere. Gerra Afrikan gertatzen ari da, eta NBERen arabera sortu dituen 800.000 errefuxiatuak inguruko herrietan jaso dira, eta ondorioz, horietan dagoen larrialdi-egoera areagotu da. Sudandik eta hedabideetan dagoeneko ahaztuta dauden beste gatazketatik ihes egiten dutenei gehitu behar zaizkie gerra horiek eragiten dituzten ekonomia-krisietatik eta ingurune-larrialdeetatik ihes egiten dutenak. Gehie-

nak bertan geratuko dira, etorkizuneko itxaropenik gabe. Batzuk Europara hiltzen saiatuko dira, edo bidean hil. Ohitu gara. Beren begirada beltzek ez gaituzte hunkitzen pantaila batetik, ukrainar argienek beste, behintzat.

Orain, udal, aldundi eta foru gobernuko hauteskundeak ditugu. Migrazio-politikak estatuen eskumenak direla argudiatuko dute, ezer egiten ez delako aitzakia hipokrita gisa. Izango dira segurtasunarekin lotzera ausartuko direnak, neurri hertsatzaileak saltzeko. Gehienek, berriz, ez dute ikusiko, total, ezin dute bozkarik eman... Eta Afrika oso urruti dago. ●